


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ETXE ZARREN ALDE LAGUNTZA ESKE



Goizueta'ko Etxea. — (AIDA ARGAZKIA).

Naparroak alderdi asko ditu. Bere edertasuna gauza askok egiten dute. Naparroa aberatsa dalako, bere edertasunetik ezin degu ezertxore baztertu. Danei eutsi bearra dago. Joandeko gizaldiak eman diguna ezin degu ostikoka ibilli. Danak jaso bearrak daukagu.

Arri zarrak Naparroa'ko aberastasun bat ditugu. Ez da aundienetako bat, orrengatik ez dira baztarrean uzteko. Naparroa'ko erri txiki ta aundi askotan, arriko etxe zar ugari ikusten ditugu. Naparroa ez bai da gaurkoa. Naparroa'n etxe zar asko arkitzen ditugu era askotakoak eta oso ezberdinek, egokiak, sendoak, zabala politak.

Diputazioak sariketa bat etxe berrituko saritzeko antoiatu du ta bidezkoa da. Luburu txiki bat ortaz mintzatu dana, argitaratu du. Oso ondo egiña dago. Merzid du irakurtzea. Asko ikasi leike.

Esango nuke: asko da Diputazioak egiten duna, baiñan ez nalkoa. Naparroa'n zontzarrez erri txiki asko ari dira ustutzen, beste aldera etxe zar asko daude berritu bearrak eta egiten merzid dutean. Ondo da txe zar baten berritzea baiñan gaur erraberritu bearrak daude, erosotasun aundia goak sartze arren. Etxe olek berritzen ikaragarriko diruak kostatzen dira ta bear aña laguntzarik gaur ez dago. Orrengatik etxe olek gaur bakarrik aberatsak berritu ditakete. Arrazoi onengatik etxe gienak ezin dituzte berritu ta ortzen zortzarrez erdi erorian ikusten ditugu, ormak zintxilik daukatela, teilatuak zulaturik. Erri batzuetan ikaragarriko bonbardeon bat izan dala dirudi. Artziber, Longida, Urraul, Gofil eta abar eta abar ikustea nalkoa da. Erdi erorian dauden etxe oietara urbidu ezker, oraindik zintxilik edo erdi erorian erri eder landuak, 12, 14, 16, 18 garren gizaldiko trudekin edo ezaugarriak dituztela, ikusten ditugu; Sarrerak leyoak, egurrak iduriekin edo abar.

Etxe eder olek eroritzen zaizkigula, asko gaitzen degu ta miña artzen. Len esan degun bezela, gaur aberatsak bakarrik altxa ditazkete. Zerbait asmatu bearra dago. Etxe berriak erosteko, errestasun aundiak daude, batez ere Aurrezki kutxen aldetik. Bear dan dirua aurreratzen dute, urte eskoren ondoren ordaintzekotan. Orreala askok eta askok egiten eta erosten dituzte beren etxeak. Orrengatik ere ari dira, zorionez, aibeste auzo berri jaiotzen eta iriak zabalten. Gure uestez etxe zarrak berritze arren errestasun berdifik eman bear lituzkete: dirua aurreratu, urte askoren buruz ordain-tzekotan. Orreala Naparroak daukan etxe zar asko ta aintzifiko erri zar asko gordeko lituzke guretzat eta gerokoentzat, poza ta atsegin izan ditezten. Urteak arri zarret beste itxura ta edertasuna ematen diete. Esango nuke, bearezkoak ditugula, gure giroari eusten laguntzen digutelako. Gaiñera edertasuna bizia bezela gizonak ez du ardu desegiteko, ortarako ez dauka eskubiderik, zuzpertz ta gordezkoak balizki.

Era ontan, erabakiak eta laguntza len bai len eskalfi bearrak daude, gureari eusteko ta Naparroak bere sustreia gorde ta zabalu dezan.


Diputazioak berea egiten du baiñan beste askok gelago egin bearra daukate, Uste dut arri zarrak ere gizonaren arimarekin zerbait ikusi bearra daukatela. Arimari arnasa ematearen, gauza askori eutsi bearra izaki.

la norik ematen ditun lenengo urratsak?

LATXAGA

EUSKAL HERRIAN BARNA

“Aralar”ko San Migel”, euskal liburu berria



Gure Aralar'ko San Migel Goiangeruari buruzko liburu eta lanak baditugu batzuk denak erderaz idatzirik daudenak.

Oraingo hontan, zorionez, Aralar'ko Aingeruari doak, kion euskeraz idatzitako liburu bat daukagu gure eskutetan. Hau da hontz buruz lehenengo euskal liburu.

Honengatik bakarrik bere etorrera merzid luke apaltea haundiki, zergatik, no. la izan ditekete gure gaurko egunetaraño oraindik ez ze-

nik euskeraz argitaratutako Aralar'ko San Migel'ri buruzko liburuak? Galdere hau ueste dut logikaz betetako dela.

Hemendik siltzinean ez dugu honelako galderearik egin ahal izanen gure buruari zergatik “LATXAGA” izenordetako den JOSE MARI SAN SEBASTIAN nafar-gipuztaz apez jaunari eskerak gaurko hontan berean euskal liburu hontz aurrean bait dugu.

“Aralar'ko San Migel” ize.

na duen liburuak gure Aralar'ko Goiangeruari eta bertako Elizari doazkioten berri, xehetasun, kandaia, kanta zaharrak, oiturrak, eta oraingoz dakigun guztiak ekartzen dizkigu argi, garbi, txukun eta bikainki argitaratu eta azaldu.

Bazan garaia, bai, baño berandu etorria bada ere azkenean gure artean da euskaldun guztiok irakur dezagun.

Liburuaren euskera, hau da LATXAGA'ren euskera,

erreza da, euskaldun guztiok aisa eta errazki ulertu ahal izango dutena.

Txit interesgarria da, ikaragarria benetan. Liburu hontan zer izan zen, zer den eta zer izan behar izango den Aralar'ko San Migel de bota Nafarroarentzat ez ezik baizik eta gure Euskal Herri osarentzat ere ongi azaltzen da.

Len ederra, haundia, garrantzi haundikoa, beharrezkoa gainera gure Euskal Herriarentzat. LATXAGA liburu hontan bitartez egin duena.

Bederatzi zatitan dago partitua gure liburu. Lehenengoan “Aralar'ko Ministroaren Hitz aurrekoa” dator. Inozentzio Ayerbe apez jaunaren euskal hitzak ederrak dira, leitzeko egokiak. Gero Zortzi kapituluatan Aralar'ko San Migelarenak: Kondaia, Elizaren asiera, San Migel'en irudia ta Euskal Herri zaharra, bere ibilaldiak, hontz buruzko kanta zaharrak; eta beste iruak, bata esanez eta aztertuz Aralar'ko San Migel Euskal Herriko “Ama sabela” dela, beste bat Nikolasa Ormaetxea “Orixe” aundi zenaren “Euskaldunak” poema-liburu famatuak San Migel'ri buruz diona, bere Aralar'endako maitasun eta joera, azkene-rako “Aralar'ko San Migel gaur” izeneko kapitulu ta LATXAGA'k esaten digu nota dan orain bertako oiturrak, Eliza, eta bere inguruetakoak; nola berrituz eta landu dituzte Eliza, eta arestean egin berri den Ostatu haundia.

Guk hemen “DIARIO DE NAVARRA”ren “Euskal Herri” hontan lan egiten dugunok pozez heterik gaude zergatik LATXAGA idazlea gure jankide da euskeraren maitasunaren, eta euskal idaz lanetan. Hemen agertzen dira aspaldatik beren lanak. Jose Mari San Sebastián idazle on ona da, euskera ongi idazten dakiena. Bidasotarra da sortzez, bere guraso eta aintzinkoek beratarak ziren eta bere era han bertan jaioa. Bere apezkizgoak Donostia Berru-tian egin zituen. Teologia eta Historiaren ikastaldia egin ditu. Gipuzkoako Orre-ja herriko Erretorea da. Ara larko mendietara begira bizi da beti, eta Euskal Herria eta euskeraren maitetasuna sartuta diti muintaraino.

Berari esker euskaldunok irakurri ahal izanen ditugu gure Aingeruaren liburu hontz agertzen direnak, eta hontz bitartez Euskal Herriko maitasuna haundiagotu, gehiagotu eta sendotu.

Zorionak LATXAGA bidez!

IKUSLE

A. ONAINDIA-REN EUSKAL LITERATURA LIBURUA

EUSKAL LITERATURA deritzan obra berri bat du Onaindiak argitaratu Bilbaon (Editorial ETOR 1972). Lehen tomoak edo Antologiak 290 orrialde ditu, eta hontz geiago dira agertzeko. Agertu berriak, kobla zaharrak, eta XVI-XVII-XVIII garren mendeak besarkatzen ditu.

2-garren tomoak, XIX garren mendeko autoreak: 3-garrenak 1895 urtetik 1920 garrenart; 4-garrenak 1921 urtetik 1940 garren arte; 5-garrenak 1941 urtetik 1960 urte arte eta 6-garrenak 1961-tik oraintsu arte. Beraz, atsandiko obra jorria; lehena euskeraz, Ormaetxea-ren laburra (Euskalesnalen) kondatuta gabe.

Pentsatzen ari gara, bizidiren autoreak behar bada ez dituela sartuko, konpromiso eta arrikku aundiko diralako. Tomo hontan, lehenik, aspaldiko euskar-errestok aipatzen ditu; Erroma denboran, Akintian, San Millan-en, Orreaga aldeko prailearen itzegiñoa, Nafarroako Foruan dauden itzak. XII garren mendean, Von Harff-enak, XV gn. mendeko pelegriarenak.

Hontan prezisiki, zilegi bazait —nai da zu gausa motxa— itz gordinak, ueste dut oker itzuli dituztela autoreak; —in da zuzentzu geiagokarin litzakela (emadazu).

Gero, Eri-aroko banderizoen kanta zahar sonatuak ekartzen ditu. Milia Lasturko-aren aiparen illetak; Ahetzeko anderearenak; Arrasateko Erretzeari elagora eder bortitzak; Martin Bañez-en argunaren kobla famatuak; (Oñateko lur au yabilt icara...).

Bai eta Ziberoko... Berterretxen kantoria... (Haltzak ezta bihotzik - ez gaitzenberak ezurrik - enian ueste eraiten ziela...).

Gure liriko erri-kanta (eta epikoak) beste izkuntzetakoen parekoak dira dudarik gabe; Literatura idatzian gauza bera ezin esan badugu ere; Pastural edo Charivari delakoan aipatzen, zati on baten gosa gelditzen de irakurlea.

Gero XVI-gn mendea; Detxepare (forma hau ezagunena dela ueste dugu, nahiz Eche-pareko berak idatzi; beste Etxepare izeneko bi idazleengandik bereizteko), Etxegaray pastural-egileen eta Logras aipatzen ditu. (Mixe euskeraz Amikuz da, eta Ostabat Ostibarre Garazi - z- leunakin da, eta Bidasoko —Cinco villas— ez ta Bosturieta Bortziri baino).

Sancho de Elso Dotrina idazlea ere aipatzen du. Etsenplariorik gabeko auzi horren karietara, atxeman nituen nik XVI gn. mende inguru hontako euskara-erdarazko bi orrialde zahar. Principe de Viana-n (92-93) argitaratu nituen, bi-eleatko nafar Dotrina bakarrekin (Berlain) berdinkaratu, Elso-koaren Dotri-narenak ote ziren kezkatu. Pedro de Madalaga bizkaitararen itzak, euskera laudatzen, erderaz dautela bezala espero ginuen, indar geiago dudako aldatu gabe. Quevedo-ren

obra *Visita de los chistes* delakoan bezala; beren 17 lerroak erderaz aise indar geiago dute, eta lerdengoak gelditzen; arrotz aipametak ingelesak eta bestek errespetatzen dituzten bezala beti.

XVII-gn mendeko idazle ospetsuari bere toki nasala ematen die Onaindia Aitak, Axular-eri bereziki; eta horien artean, aski gutti ezagun diren batzuen berri ere dakarra, iru Etxeberri izeneko adibidez, ziburutarraz landa; Bidegaray nafarra, etc.

BERIAIN nafarren euskalkiaz berri gei-ago ikus ditake, *Nuevos documentos para el est. del Vasc. A. navarro meridional*, nere artikuloan; *IV Symposium de la Prehistoria y Etnologia vascas*, Pamplona, 1966 liburuaren agertua; bai eta *El Tratado de oñe missa euskérica de Beriayn* delakoan (Fontes L. Vasc. 2).

XVIII garren mendean, Ubillos, Mendiburu, Kardaberaz, aipatzen ditu. Utseginen dute *Fray Bartolo, Astarloo, Añibarro*, etc. ueste dugu ondoko mendean emango dituela.

Bidasoaz goitlan, Joannes Etxeberri sarar-ter mediku eta idazle eskolatua ekartzen du: Urkijok beren obrak 1907-an argitaratuak. Pierre Durte donibandarrak Itzegi bat, Gramatika bat eta bibliaren zati bat idatzi zituen; higenota zen. Gero aipatzen dira *Churio, Haraneder* eta *Maister* ziberotarra, bai eta Lopez amikuztarra; honak dion... *ahuer* zuzkidan kapitulu heen parte zumbait utzi... delakoan, prailearen grinaik estaltzen ditu Lopezak. Añibarrok Guero-ren bizkaiteraztean egin izan zuen bezalatsu. Nafarren artean, Mikelestorena eta Elizalde Muzikioa (ez Elizalde).

Onaindiak asieran, Mikel Zarate idazle-aren kezak aipatzen ditu, euskalkleri eta batasunari buruz. Ele zentzukoak dira eta batasun aldera dago, bizkaitera baztertu gabe. Hala behar ere; guk ueste lehen urratsean, erdikoan arteko batasuna errezago litzakela; bizkaitarra baztertu gabe, baina aditz formetan eta itzetan, zentroaldera direnak atartuz, beste euskalkietan bezala. Gero bigarren urratsean, bizkaitera ere besarkatu.

Onaindiaren idatzankera garbi eta jatorria da; ez batera illuna. Lehenengo garbizale alder-za zuen ixuri hura, asko deundu duela eruatzen du, bide batez ulertzerrezago eginer irakur-gaia. Gipuzkoeraz egiten du, baina orain bat-zuk egiten duten baino aise argiago. Texto zaharrak ere lehiaki kopiatzen ditu, eta hau derrigorrezkoa, baitaezpadakoa denezgeroz, behin baino gehiagotan hala ere, ditugu, erdar-ratiko itzak aldatzen ikusi; halako bidegabe-kerik liburu eder hontan ezta nabari. Batasun aldera lantzen da Onaindia, eta ezta ortogra-phia berriaren etsaia. Biziki irakurri atsegin-garria.

A. APAT-ETCHEBARRNE

LIBURUAREN BESTA EGUNA

«Don Quijote de la Mancha» nobelaren egilearen heriotz eguna Apirilaren 19an zela eta, Liburuaren eguna, Apirilaren 19an ospatzen da.

Guk ere, euskaldunok, geure hizkuntzaren eguna ospatu behar genduke.

Cervantes ber-berak eskubide emanen digu hortarako.

Hona idazle handiaren hitz gogoangarri hauek: (D. Quijote-ren expalnetan jarriak): «Y a lo que decis, señor, que vuestro hijo no estima mucho la poesía de romances, doyme a entender que no anda muy acertado en ello, y la razón es ésta: el grande Homero no escribió en letin porque era griego, y Virgilio no escribió en griego porque era latino. En resolución, todos los poetas antiguos escribieron en la LENGUA QUE MAMARON EN LA LECHE, y no fueron a buscar las extranjerías para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase al poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, NI AUN EL VIZCAINO (euskalduna) que escribe en la suya».

Españiarrek, «vizcaíno» izenez, Euskara eta euskaldunak aditzera eman ohi dutela, gauza jakina da.

Adibidez, Xabier-ko Prantzisko sanduko, india-ko Cochín, hirian, Ebanjelioa zabaltzeko aurkitu zituen oztopoz mintzo delarik; hau dakar: «Por ser su lengua natural malabar y la mía VIZCAINA».

Euskalduna bere hizkuntza erabiltzeaz lotsatuko ote, Cervantes handiari entzundakoa entzunik?!

Aurre-iritzi edo prejulzio batek, euskaldun antz gibelatzen du euskeraz egitetik. Euskeraz egitea, politika egitea dela ueste izateak, alegia.

Uste zozoagorik! Ordea, hala ueste izatetik, nahastura ikaragarria etortzen da.

Diodona egiztatzeko, A. Apat-Echebarrne-ren: «Noticias y Viejos Textos» izeneko liburutik, Basarri-ren hau dakar: «Amorru (amorru) ikaragarria ematen dit euskera politikarekin nestak». «Me subleva ver mezclar la política con el vasquense»; y sigue: «Tan vascofilo (euskaltzale) como un carlista puede ser un socialista; un aberzale o un fanaglista».

Bukatuko, euskaldunak, edozein euskaldunak, zer eragozpen du, ene ama maite, eta ene sende denak egiten duten gauza ber-bere ez egiteko?

Eskutitz edo kartak euskeraz iskribitzeko, alegia?

Euskaldunok, tx, tx, z, x, eta holakoen beldur ote zarete, euskeraz iskribitzeko? Uskeria hokegatik: «LA LENGUA QUE MAMARON EN LA LECHE» ukatuko ote? Jende apal-nagoen aurrean, zueen ama ukatzea bezala litzake hori!

Hamaika urte geizto gurasoekin egin ohi duen bilakaria (villanía) ber-bere hau; zortzarrez, makina bat euskal-seme-alaba geiztoke ere, ama-euskerarekin egin ohi izan du, eta egiten du!

Cervantes-ek onetsiko ote luke euskaldun askoren egite-molde hori? Inola ere ez.

Are gutiago onetsiko luke, euskaldun geiztoak, euskeraz idazten duen seme xintzo, politika egiten ari dela esatea. Aitzitik, esanen luke, berriz ere: (testoko «NI AUN» mugat-zaila edo diskriminatzailea hori ezabatuz edo ezestatuz naski baino naskiago, gauza esateko): «Y que no se DESESTIMASE... ni aún el vizcaíno que escribe EN LA SUYA».

Zenbeitzuentzat gurean euskeraz egitea, bekatu handi egitea bait da! Ordea, LENGUA QUE MAMARON EN LA LECHE», Euskerak, alegia, «buru jasotzea Jainkoak nai du».

PREMIN IXURKO

AXULAR SARIA TORTUGA ETA ERBIA

Behin batean tortuga bat eta erbi batbaziran egun bavean tortuga joan zen ikastola batera: tortuga aise zen irakurzen, gero tortuga eta bere lagunak joan ziren rekreroa; rekreroan bazuten baloiak, zalanburuak eta auzin gauzak gehiago eta tortuga eta bere lagunak aise ziren baloiakin jostaten; orduan tortugari autsi zuen anka eta eraman zuten hospitalera; sendatu autsi zuen eta tortuga joan zen bere etxera eta bere ama sartu zuen guztian; gero etorri zen erbia tortugari bizitzera eta erbia eman zuen gotxokiak, txupatut-sak, eta txikileak.

EDUARDO ZUBIKOA BIELA, 7 urte

ELIZONDOKO IKASTOLAKOA

IPUIA

Beln batez bazen otso bat tripzagia eta jaten zuen dena, loarek ere bai eta otsoei. Beti josten zen pasaleta-za bazkaria arpatzera. Egun batean joan zen eta arropatu zuen otso bat txiki txikia eta jan zuen atski batena baino oraindik beuzen gosa gehiago eta jan zuen txori bat eta bazuen gosa gehiago eta jan zituen ehun lore eta kantu sitzaiotz gosa, joan zen bere etxera eta aibertzta beste zuen tripa hasi zela alxia batean jartzen eta autsi zen alxia eta buruz beiti bota zen lurrera.

MARIA ELENA EZKURDI 7 urte

ELIZONDO-KO IKASTOLAKOA